

▶ARRASATE-MONDRAGON

| JOXEFE DÍAZ DE TUESTA | IDAZLEA



Joxefe Díaz de Tuestak datorren martitzenean, hilak 16, auzetuko du liburua Kajoi tabernan 19:00etan.

## «Shakespeareren antzerki lan baten argumentua Nafarroan gertatzen da»

Atzerritarrek Euskal Herria dute hizpide Joxefe Díaz de Tuestak etzi aurkeztuko duen liburuan

KEPA OLIDEN

«Euskal Herria atzerritarren ahotan» du izenburua Joxefe Díaz de Tuestak argitaratu eman berri duen liburua. Erromatarren denboratik hasi eta gaur egunera arte Euskal Herriari eta euskaldunei buruz kontu ahala testu idatzi dira. Horietako batzuk bildu ditu 248 orrialdeko ale honetan autoreak, Diego Martiarturen laguntzarekin. Esku artean ibili dituzten testuetatik 130 autooreren bano ez dituzter aukeratu. Argitalpena euskaraz da, jatorrizko testuak gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, katalanez badaude ere. Liburua martitzenean aurkeztuko da Kajoi tabernan 19.00etan.

–Zerk bultzatu zituen liburu hau idaztera?

–Orain dela bost urte hasi nuen lan hau. Hasiere batean nire asmoa zen testu labur batzuk biltzea, banaka batzuk baino ez, Arrasate, irudiak liburuan argitaratzeko. Uste baino gehiago bildu nuen eta, gainera, konturatu orduko gaiak harrapatuta nengo. Gero Oñati, irudiak liburuan ere aipu gehiago argitaratu nuen. Orduan konturatu nintzen pena zela lan hori, niri biltzen hainbeste kostatutako materiala, ez zabaltzea. Eta argitaratzea erabaki nuen. Zalantzan egon nintzen Internet-en jarri edo liburu moduan argitaratu. Orain, liburua ikusita, aukera ona egin dudala uste dut.

–Nola eta noiz hasi zinen ikerketa

hau egiten? Nola moldatu zara ikerketa hau egiteko lanorduetatik kanpo?

–Bildu ditudan testu gehienak artxiboetan aurkitu ditut, Gasteizko Sancho El Sabio Fundazioan, batez ere. Banaka batzuk, oso gutxi, liburu dendetan aurkitu ditudan testuetan. Astean behin edo birritan artxibora joaten nintzen testu bila. Behar nituen testuen fotokopia egin eta gero etxean egin lantzen nituen: testuak irakurri, niri gustatutako testu zatiak aukeratu, ordenadorean sartu eta sailkatu. Horixe izan da lana. Askotan testu batek beste testu edo autore batzuen berri eman izan dit eta horrela lortu dut apurka-apurka lana osatzea.

–Nola ikusi dute Euskal Herria mendeetan zehar etorri izan diren bidaiariak?

–Liburuan azaltzen diren autore guztiak ez ziren Euskal Herrian izan, ez ziren bidaiariak. Estrabon, erromatar garaiko geografo grekoa, adibidez, ez zen Euskal Herrian izan. Baina bazuen informazioa, beste geografo batzuek egindako lanak erabili zituen, eta hainbat azalpen eman zuen Euskal Herriari eta euskaldunei buruz. Dante, Boccaccio eta Shakespeare ere ez ziren Euskal Herrian izan eta, hala ere, bazuten euskaldunen berri. Beste asko, berriz, bidaiariak ziren. Bestalde, zaila da labur esaten nola ikusi duten atzerritarrek Euskal Herria. Bidaiaria bakoitzak eta autore bakoitzak bere ikuspegia



**Euskal foruek EE.BB etako konstituzioan eragina izan zuela uste dute batzuek**

du. Hala ere, badaude estereotipo batzuk, askotan errealitatean oinarrituta daudenak. Euskal Herri pobrea eta euskaldun basati eta gerlariaren topikoa dago, erromatarren garaian batez ere. XV-XVII. mendeetan, berriz, euskaldun abenturazale eta alaiaren irudia eman zuten bidaiariak. Autore erromantikoez Euskal Herri bukolikoa aurkitu zuten, berezko balore etiko handiak zituen herria, herri idealizatu bat, seguru asko. XX. mendean, berriz, mota guztietako iritziak izan dira eta topikoek indarra galdu dute, nire iritzi.

–Zer dela-eta etorri ziren Euskal Herria?

–XX. mendera arte Euskal Herria etorritako bidaiari asko merkataria izan edo, bestela, militarra eta nobleak. Erromesik ere izan zen, Santiagora bidean ziho-

azenak. Bestela ere hizkuntzalariek etorri izan dira Euskal Herria euskarak erakarrita. XIX. mendean idazle erromantikoez eta dirudun turistak etortzen ziren, asko Euskal Herriko Iparraldera, Miarrizera batez ere. Eurek zabaldu zuten, nolabait, euskaldun fededunaren mitoa, arraza garbiaren eta euskal nazioaren ideiak.

–Zer aurkikuntza edo bitxikeria topatu duzu lan horretan?

–Shakespeareren antzerki lan baten argumentua Nafarroan gertatzen da. «Nafarroa miragarria izango da munduarentzat» hitzak jarri zituen Shakespearek obra horretako pertsonaia baten ahoan. Bestetik, literatura erotikoan oso ezaguna den idazle batek –Anais Ninek, alegia– euskaldun bat aukeratu zuen bere ipuin bateko pertsonaia nagusi moduan. Euskaldunak Kanadako indioekin harremanetan jarri ziren eta elkarri ulertzeko hizkuntza bat sortu zuten, euskararen eta indioen hizkuntzan oinarritutako pidgin bat. Hori autore askok esan dute eta oso dokumentatuta dago.

–Nor izan zen gustukoaren duzun bidaiaria?

–Liburuan jaso ditudan autore gehienek dute zerbait interesgarria iruditzen zaidana. Rodney Gallop diplomatiko eta folklozele ingelesa, adibidez, oso gustukoa dut, Euskal Herria desmitifikatzen saiatu zen, Euskal Herria mitikoaren gezurrak eta euskaldunei buruzko topikoak agerian jarri zituen. Hala ere, oso gauza politak esan zituen, asko maite zuen Euskal Herria. John Adams Estatu Batuetako bigarren presidentea ere oso gauza politak esan zituen: Bilbon izan zen eta euskal foruen berri izan zuen. Batzuen iritzi, John Adams-en bidez euskal foruek eragina izan zuten Estatu Batuetako Konstituzioaren testuan. Arturo Arlt argentinar kazetaria ere oso ikuspegi pertsonala eman zuen: oso zorrotza zen, errespetu handiz idatzi zuen Euskal Herriari buruz, hemen ikusi zituen gauza askorekin ados ez bazegoen ere.

–Bidaiari ilustre eta erromantikoen garaia pasatu da. Egun komunikabideek betetzen dute eginbehar hori. Zer deritzozu?

–Gaur egun kazetariak dira nagusi komunikabideetan eta eragin handia dute jendearen iritzietan. Batzuk oso profesional onak dira. Beste batzuk, berriz, interes «nazional» eta ekonomikoaren morroi dira, agintearen zerbitzari. Badira «chauvinistak» ere. Denetarik dago. Garai batean erregeek eskatzen zieten gorteko kronikagileei bere figura gorai-patze eta etsaiak iraintzeko. Denboraz, ordea, garbi ikusten da zer nolako gezurrak esan diren, nor eta zergatik esan dituen.

–Euskal Herriaren irudiak, gatatzeko politikoa medio, manipulazio latzak jasan eta jasaten ditu? Ba al dago, egun, iturri fidagarri edo objektiborik?

–Ni ez naiz komunikabideetan aditua. Nik badauzkat nire iturri fidagarriak. Iturri fidagarria iruditzen zait niri hona oportetan datorren turista, gehienetan etxera bueltatu eta iritzi ona, oso ona, eramaten duena. Toni Strubell kazetari katalana eta Mark Kurlansky estatubatuar idazlea oso iturri onak dira. Selma Huxley ikerlari kanadiarra, William Douglass antropologo estatubatuarra. ■

## Recopilación de textos sobre Euskal Herria y los vascos

K.O.

*Euskal Herria atzerritarren ahotan*, libro que acaba de ver la luz de la mano de Joxefe Díaz de Tuesta con la colaboración de Diego Martiartu, recopila los testimonios que sobre Euskal Herria y los vascos dejaron más de un centenar de viajeros y escritores extranjeros.

Los primeros testimonios escritos que se conocen sobre los vascos y su tierra se remontan a hace 2.000 años, y provienen de los geógrafos e historiadores romanos. Desde entonces se han escrito y publicado incontables textos referidos a Euskal Herria, sobre todo a partir del siglo XIX. Ante la imposibilidad de abarcar todo este inmenso campo literario en un sólo libro, Díaz de Tuesta ha seleccionado, a modo de muestra, los textos de 130 autores extranjeros, entre los que sólo han tenido cabida aquellos que «transmiten una imagen positiva» de Euskal Herria. El autor ha extraído de cada autor los pasajes que más interesantes ha juzgado, completando su obra con una antología de citas.

Los textos originales han sido traducidos del castellano, francés, inglés, catalán y portugués al euskera, lengua en la que está escrito este libro de 248 páginas, editado por la asociación Arrasate Argitan, y que se presentará al público el próximo martes día 16 en el bar Kajoi a las 19.00 horas.

### Curiosidades

Joxefe Díaz de Tuesta emprendió hace 5 años la investigación que ha desembocado en este libro. Aunque su propósito inicial no era otro que recopilar algunos textos breves para ilustrar el libro de fotografías *Arrasate, irudiak*, pronto se vio desbordado, y enganchado, por la gran cantidad de documentación que iba recopilando.

No todos los autores incluidos en el presente volumen estuvieron en Euskal Herria, pero ello no impidió a Dante, Boccaccio o Shakespeare tener conocimiento de los vascos. Así, por ejemplo, el legendario dramaturgo inglés escribió una obra teatral cuyo argumento transcurre en Navarra.

El segundo presidente estadounidense John Adams (1735-1826) estuvo en Bilbao y se interesó por los fueros vascos. Hay quien asegura que, a través de Adams, los fueros vascos influyeron en la redacción de la Constitución de los Estados Unidos de América, aprobada en 1787.